



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2007-11-13

V.URTEA 1.286.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

CESARIA EVORA ABESLARIA

«Iraganera bidaiatzea da musika, barnekoa adierazteko modua»

TOLOSA Kontzertua eskainiko du gaur Cabo Verdeko abeslariak, Leidor aretoan, 21:00etatik aurrera

SAIOA 'Rogamar' diskokoak eta abesti ezagunenak izango dira 'Mundua Tolosan' ekimenaren baitako kontzertuan 4



Tolosaldeko korrikalari asko Behobiara joateko urtero bezala autobusez egin zuten bidea. Irudian, autobusean sartu aurretik, lasterketa gunera iristeko irrikaz. JOXEMI SAIZAR

ESKUALDEKOAK BIKAIN BEHOBIAN

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Ramon Otegi gazteluarra izan da eskualdeko parte-hartzailerik azkarrena 2-3

txokoa **h**

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!



BRUESA GBC
Beirasar Rosalia

OSTIRALA

AZAROAK **16 - 20:30**

ILLUNBE

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

» **BEHOBIA-DONOSTIA SAILKAPENA HERRIKA****Abaltzisketa**

01:34:57 Iraitz Zubeldia Mujika

Aduna

01:15:33 Francesc Prat Roca

Albiztur01:29:41 Gorka Arandia
Aranguren
01:18:02 Isidro Condado Elola
01:40:17 Josu Elola Zeberio
01:32:44 Iker Ezeiza Artola**Aldaba**

01:35:59 Jesus Urtea Labari

Alegia01:30:56 Imanol Aizpurua
Sorondo
01:45:26 Ibon Azpilikueta
01:38:49 Olatz Bordagarai
01:49:09 Beñat Garmendia Iraola
01:31:39 Santi Gonzalez Vazquez
01:48:39 Aitor Gutierrez
Garaialde
01:34:40 J.M. Lampre Irulegi
01:38:49 Jose Manuel Mujika
Eizmendi
01:49:57 Juan Manuel Pereira
Piña
01:53:51 Jon Ander Rodriguez
Cartagena
01:24:24 Unai Ugartemendia
01:30:26 Iñaki Usabiaga Beristain
01:55:05 Jaione Zubillaga Mañeru**Alkiza**01:19:46 Urko Aranzabe Saralegi
01:28:06 Gorka Goikoetxea**Alto**01:35:03 Mikel Iriarte Iribar
01:19:28 Mikel Murua Balerdi
01:16:25 Murua Gorostidi Iñaki
01:36:28 Iñaki Olano Orbegozo
02:00:20 Juan Ruiz Zeberio**Anoeta**01:46:23 Ibai Agirre Calvo
01:18:51 Valentín Aranzabe Urkiza
01:29:51 Unai Arrieta Gorostiaga
01:32:20 M. Aingeru Atxega Zira-
ku
01:37:16 Jabi Ayerbe Gallurralde
01:38:30 Mikel Balda Larrañaga
01:43:43 Jexux Mari Garmendia
Iturralde
01:28:20 Antxon Iraola Bengoa
01:23:06 Mikel Irazusta Etxeber-
ria
01:29:57 Karmelo Irazusta Ugar-
temendia
01:28:01 Jesus Loidi Agirrezabala
01:30:25 J.M. Puras Rodrigo**Asteasu**01:29:16 Jose Ramon Altuna Royo
01:20:16 Jexus Mari Arrikarte
Moreno
01:23:24 J.K. Ayerza Sarasua
01:47:37 Juan Karlos Bejarano Ri-
vero
01:35:03 Jon Beobide Tapia
01:27:52 Jabi De la Romana Ba-
chiller
01:22:01 Karlos Diez Madera
01:47:48 Joxe Esnaola Iraola
01:47:48 Luis Esnaola Iraola
01:57:54 Alvaro Garcia Fernandez
02:08:25 Peio Garitano Rezabal
01:53:16 Imanol Goenaga Martia-
rena
01:29:26 Sorkunde Irazu Belda-
rrain
01:27:09 Iñaki Irazu Iraola
01:15:47 Joxean Jimenez Grandes
01:37:55 Igor Larrarte Usabiaga
01:40:42 Luis Mari Mujika Arregi
01:26:52 Xabin Mujika Tolaretxipi
01:24:56 Igor Narbarte Otaegi
01:37:56 Amaia Otegi Aldai
01:19:50 Oier Roteta Pagadizabal
01:19:08 Jokin Txapartegi
01:23:20 Jon Usandizaga
01:40:18 Iñaki Zubeldia Irazusta**Belauntza**

01:32:49 Juan Legarra Zabala

Berastegi1:35:59 Agirrezabala, Julen
1:34:55 Castro Urkizu, Mikel
1:34:55 Castro Urkizu, Mikel
1:41:46 Goienetxea, Fermin
1:34:20 Labayen Esnaola, Mikel
1:40:20 Larburu Etxeberria, Mikel
1:17:35 Saizar Matxinea, Iker
1:45:23 Saizar Zinkorbe, Ibai
1:42:39 Tolosa Ustoa, Mikel
1:44:57 Ugartemendia, Jose
1:23:34 Ugartemendia, Josu
1:22:14 Zabaleta Aldasoro, Unai
1:43:25 Zubillaga Saizar, Jabier**Berastegi**1:43:31 Artola Noble, Niko
1:40:07 Aurkia Zapirain, Iñigo
1:16:22 Madina Aizkorbe, Ibai
1:22:51 Plazaola Usabiaga,
Gregorio**Bidegoian**

01:39:56 Naiara Elola Azurmendi

Elduain01:54:37 Iruretagoiena Aizpuru
Asier
01:59:57 Etxetxipia Elizaran Koldo**Gatzelu**

01:06:17 Otegi Goikoetxea R.

Ibarra01:31:22 Alustiza Gorria, Jon
01:59:49 Alustiza Gorria, Maite
01:21:55 Alzate Goitia, Andoni
01:44:55 Amenabarro, Lander
01:43:32 Artola Satrustegi, Urko
01:47:37 Artola Urbil, Jesus
01:23:42 Aseginolaza, Iñigo
01:58:21 Basterretxea, Rafa
01:33:58 Beloki Alkorta, Iñigo
01:36:22 Bengoetxea, Aitor
01:29:51 Del Villar Armendariz,**Elias**01:40:36 Esnaola Rodriguez, Pili
01:24:33 Garmendia Gorostidi
Jose Angel
01:42:12 Garmendia Mendizabal,
Aratz
01:36:04 Garmendia Sukunza,
Ibai
01:43:52 Goikoetxea, Joakin
01:23:32 Goikoetxeaundia, Gorka
01:22:25 Gomez Mora, Expedito
01:35:22 Gonzalez Bodego,
Eduardo
01:22:03 Gordejo Urrestarazu,
Fernando
01:28:33 Iglesias Iturrioz, Ramon
01:37:58 Iglesias Iturrioz, Antxon
01:40:37 Iza Urretavizcaya,
Amaia
01:26:54 Lasa Otamendia, Itziar
01:25:20 Lekuonba Sainz,
Alfonso
01:25:01 Lopetegi Arandia, Mikel
01:56:25 Mendia Usabiaga, Saioa
01:49:12 Moron Pejenaute, David
01:17:11 Movellan Gibaja,
Fco. Javier
01:36:22 Ortiz de Zarate, Oihana
01:30:25 Ortiz De Zarate Calvo,
Igor
01:31:22 Oyanluze Lopetegi, J.C.
01:23:31 Saizar Ibarzabal, Xabier
1:58:35 Sanchez Artieda, Iñaki
01:26:48 Sanz Agirre, Loitzun
01:16:56 Vicente Artieda, Iban
01:48:23 Victoria Gomez, Marce
01:58:21 Zabala Goenaga, J.M.
01:35:31 Zuzelzu Jaka, Eugenio**Irura**01:38:57 Alcalá Ortiz, Carlos
01:26:52 Amondarain, Javier
01:46:17 Artola Eizagirre, Asier
01:40:09 Irizar Guridi, Arantzazu
01:36:32 Isasa Lersundi, Pablo
01:41:49 Lizaso Etxeberria,
Andoni
01:28:36 Muñoz Mateos, Sonia01:18:03 Ortiz Gabarain, Igor
02:08:57 Otermin Iriarte,
Maria Pilar
01:53:34 Otermin Parra, Oskar
01:51:12 Otezabal Olarra, Ander
01:22:18 Zabalegui Arruabarrena,
Joseba
01:19:51 Zubeldia Hermina,
Fernando**Larraul**01:52:11 Herrero Gorrotxategi,
Pilar (9999)**Leitza**01:18:22 Aizagirre Lasarte, Eneko
(506)
01:22:23 Aranzegi Elordi, Haritz
01:34:56 Arrizurieta, Antonio
01:34:33 Astibia Perurena, Iker
01:47:15 Craamer Van Cronen-
burg, Peter
01:25:48 Godoy Murillo,
Joxe Migel
01:47:03 Hernandezorena, Garbiñe
01:54:31 Iparragirre, Javier
01:31:21 Irueta Oharriz, Jesus
Mari (3549)
01:22:40 Juantorena, Angel Mari
01:23:30 Lizarraga Zabaleta,
Miguel Angel
01:39:17 Lizarraga Zabaleta, Patxi
01:26:59 Perurena Zabaleta,
Inaxio
01:43:15 Razkin Calderon, Javier
01:47:03 Saralegi Mariñelarena,
Mikel
01:17:25 Uriarte Intxaurren, Iraitz
01:33:27 Zabaleta Zubeldia,
Xabier**Lizartza**01:46:15 Eizagirre Etxeberria, J.M
01:46:16 Eizagirre Etxeberria,
Angel
01:37:23 Lopetegi Arozena,
Maitane

Eskualdekoak Behobia-Donostia lasterketako lehen postuetan

Tolosaldea eta Leitzaldea » Ramon Otegi gazteluarra eta Loitzun Sanz ibartarra izan dira aurtengoan eskualdeko korrikalari azkarrenak

E. EZEIZA - N. URBIZU

12.784 korrikalari ateratu ziren igandeko Behobia-Donostia lasterketan. Aurtengoa 43. edizioa izan da. Korrika egitera ateratu nahian 2.000 lagundik gora geratu ziren, denbora askoan prestatzen aritu ostean. Chema Martinez hirugarren aldiz izan da lasterketako garaile. Honek ordu bat eta minutu bat eta 48 segundoko denbora behar izan zuen 20 kilometro eta 200 metroko ibilbidea zeharkatzeko. Emakumezkoetan Sarah Kerubok bigarren markarik onena egin zuen; lasterketako bigarren markarik onena, alegia. Lasterketa ospe-

tuan parte hartu zuten gehienak lehenagotik ere ateratakoak ziren. Martin Fiz eta Sarah Kerubok gogoz korri egitera behartu zuten Martinez, korrikalari espainiarra. Izan ere, aurreko edizioetan baina zailago izan zuen lehen postua eskuratzeko. Hala, aurreko bere marka hobetzea lortu zuen. Dena den, lasterketaren historian, Martinezena baino denbora hobeagoak asko dira. Izan ere, zazpi lagunek ordubete baino gutxiago behar izan zituzten ibilbidea egiteko. Bestalde, Martinezek, 36 urterekin, txapela, farola eta loreak eramateaz gain, beterano onenaren

saria ere irabazi zuen. Garaikur hau, 35 urtetik gora dituzten, eta lasterketan protagonismo berezia izaten dutenei ematen zaie.

Eskualdeko partaide ugari

Aurreko urteetan bezala Tolosaldeko eta Leitzaldeko jende ugari hartu zuen parte. Hauetak askok, gainera, denbora onak egin dituzte.

Eskualdeko azkarrena gazteluar bat izan da, Ramon Otegi hain zuen ere. Honek ordu bat, sei minutu eta hamazazpi segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko. Hau da, irabazleak baino bost minuto gehiago bakarrik. Hala, sailkapeneko 13. postuan geratu zuen.

Emakumezkoetan, berriz, Loitzun Artola ibartarra izan da eskualdeko azkarrena. Bere denbora ordu bat, 26 minutu eta 48 segundokoak izan zuen.



Eskualdeko korrikalariak Behobia-Donostian. A. OTEZABAL

01:43:54 Valencia Garcia, Maximo	01:48:47 Egiguren Agirre, Ainhoa 01:26:34 Elduainen Mateo, Aitor 01:40:25 Elizalde Chasco, Elisabet 01:46:53 Elola Odriozola, Igor 01:31:52 Ettxeberria, Eneko 01:41:20 Ettxeberria, Iñaki 01:33:01 Fernandez Elola, Amaia 01:57:11 Gabarain Arregi, Markos 01:42:54 Galarza Aizpuru, Jon Ander 01:59:07 Galarza Larrinaga, Iker 02:35:48 Garaialde Goikoetxea, Idoia 01:43:08 Garro Arruebarrena, Antton 01:32:33 Gastesi Iriarte, Jesus Mari 01:37:56 Goikoetxea, Iñaki 01:51:23 Goikoetxea, Guillermo 01:42:47 Goikoetxea, David 01:24:48 Gonzalez Ceberio, Inaki 01:23:18 Gonzalez Irazusta, Erlantz 01:31:36 Gorostegi Izaguirre, Gorka 01:25:24 Gurruztanga, Inaki 02:05:42 Hidalgo Martin, Laureano 01:23:49 Iraola Urruzola, Joxean (1376) 01:27:52 Irazustabarrena, Jon 01:55:05 Iriarte Iribar, Garbiñe 01:59:11 Isasti Elozegi, Igor 01:52:59 Iturralde Uria, José M ^a 01:19:28 Iturria Agirrezabala, Jexux 01:33:48 Izaguirre Irure, Josu 01:44:47 Jauregi Garmendia, Martin 01:38:49 Jauregi Irigoien, Aitor 01:47:09 Jauregi Irigoien, Xabier 01:12:18 Jauregi Leunda, Joseba 01:36:41 Labayen Iburguren, Idoia 01:41:33 Lakunza Lopetegui, Carlos 01:50:03 Lakunza Zumeta, Mitxel 01:31:13 Larrea Llamas, Asier 01:51:02 Larreta Zinkunegi, Koldo 01:52:59 Lasa Arteaga, Amaia 01:26:30 Lasa Zubizarreta, Juan Mari 01:38:35 Lastra Manzanal, Jokin 01:46:03 Lazkano Alkain, Miguel Angel	01:28:38 Lesaka Garmendia, Kepa 01:27:03 Lopez Moreno, Jose Luis 01:44:53 Luluaga Altuna, Jose Manuel 01:39:13 Maiztegi Gorostiza, Murtxe 01:19:26 Marin Maiza, Ion 01:31:30 Martin Arregui, Iban 01:43:12 Martin Muñoz, Victor Manuel (7605) 01:57:11 Mateos Blanco, Montaña 01:46:39 Mateos Murua, Xabier 01:22:08 Mayorga Alonso, Santiago 01:29:44 Mendia Gomez, Iñigo 01:45:40 Mendizabal, Arritxu 01:46:04 Mokoroa Arruti, Arantxa 01:28:56 Montoya Zubeldia, Joxean 01:27:58 Murua Ustariz, Iñigo 01:41:08 Novillo Santin, Alejandro 01:44:32 Oiarzabal Iradi, Lourdes 01:52:41 Oiarzabal Lakunza, Gabriel 01:12:19 Olano Manzano, Abraham 01:46:10 Ormazabal Zaballos, Iñigo 01:51:09 Osorio Redondo, Domingo 01:11:06 Pagola Guruzeaga, Iker 01:35:37 Perez Arratibel, Lorenzo 01:19:13 Regillaga Beloki, Aitor 01:43:31 Saizar Arostegi, Joxemi 01:41:19 San Sebastian Ormazabal, Patxi 02:09:52 Sarasola Astigarraga, Beñat 01:30:31 Sevillano Amatriain, Alar 01:48:35 Sukia Razkin, Alberto 01:53:35 Tapia Jimenez, Jose Manuel 01:59:50 Tena Iturriza, Iñigo 01:18:36 Tena Ponce, Serafin	01:22:44 Ait Chau Ait Chau, Abderrahmane 01:29:46 Ariño Sanchez, Alberto 01:59:47 Arrastoa Odriozola, Jon 01:23:35 Arretxe Sarasola, Imanol 02:01:19 Ayerza Tapia, Xabier 01:34:21 Azkarate Ametztoy, Gaizka 01:44:39 Begiristain, M ^a Jesus 01:52:15 Belartietia, Naiara 01:44:05 Beobide Mujika, Aitor 01:21:49 Buitron Escorza, Rafa 01:37:46 Calvo Estevez, Fco. Javier 01:34:55 Castellano, Angel 01:31:10 Corredera Perez, Eustaquio 01:48:09 De La Canal Miguel, Ismael 01:34:55 Castellano, Angel 01:28:28 Eguren Oyarzabal, Gorka 01:25:48 Erro Iruretagoiena, Mikel 02:35:47 Gabirondo Cia, Josune 01:46:41 Galarza Irazusta, Julian 01:57:53 Garcia Fernandez, David 01:26:55 Gaztañaga Barbado, Andoni 01:48:47 Gibelalde Barriola, Xabier 01:45:05 Gil Luis, Jorge 01:29:46 Gomez Clemente, Iñaki 01:34:59 Gonzalez Iglesias, Jose Angel 02:22:26 Hornero Serrano, Victor 01:44:05 Iraola Tapia, Larraitz 01:33:29 Iztueta Roteta, Iñaki 01:32:29 Larrañaga Ettxeberria, Mikel 01:24:57 Laskurain Iturbe, Iker 01:27:23 Larreta Balerdi, Ugaitz 01:45:16 Larena Ruiz, Nuria 01:37:31 Loyarte Legorburu, Eli 01:27:45 Maiz Erdocia, Jose Javier 01:17:32 Majano Diaz, Juan Manuel 01:12:55 Manso Blazquez, Iker 01:56:02 Martin Ignacio, Raul 01:37:05 Mitxelena Vidor, Xabier Patxi 02:21:04 Mujika Romeo, Borja 02:00:33 Murua Urbelua, Javier	02:05:01 Olasaguirre, Xabier 01:10:05 Piedra Ruiz De Larrinaga, Enrique 01:52:38 Puga Pereiro, Sara 01:24:25 Puyadena Korta, Koldo 01:48:26 Rodriguez Bermejo, Ion 01:18:29 Rodriguez Sanabria, Patxi 01:28:40 Romeo Jauregi, Julen 01:23:34 Saizar Matxinea, Joseba 01:34:06 Soto Labanda, Oscar 02:01:20 Ugartemendia, Olatz 01:15:02 Urdanpilleta, Juan Carlos 01:12:32 Urizar Otamendi, Luis Mari 01:32:55 Urretabizkaia, Ixidro 01:45:22 Valderrama, Jose Miguel 01:51:56 Vergara Larrarte, Joseba 01:44:27 Yaben Laskibar, Gorka 01:29:48 Zaldúa Brit, Aitor
Tolosa 01:49:10 Agirre Otegi, Arantzazu 01:25:27 Agote Garmendia, Agustin 01:42:05 Aguinagalde, Joseba 01:36:38 Aizeburu Zabaleta, Fabian 01:42:47 Alonso Martinez, Cristina 01:31:38 Alonso Uranga, Andres 01:59:07 Amonariz Lekuona, Iker 01:25:36 Arocena Lasa, Jon 01:24:36 Artola Garikano, Pablo 01:47:36 Artola Otamendi, Pedro Antonio 01:39:16 Atorrasagasti, Alvaro 01:29:29 Azkarate Egiguren, Juan Ignacio 01:28:03 Azkue Arrastoa, Jose Luis 01:13:53 Belaunzaran, Felix 01:16:36 Beldarrain, Jose Maria 01:28:38 Belza Aranburu, Josemi 01:39:14 Bengoa Ansa, Aitor 02:06:22 Beobide Etxabeguren, Xabier 01:52:36 Calvo Aramendi, Jose Angel 01:22:33 Carrera Larreta, J.A 02:11:21 Cea Garcia, Idoia 01:47:36 Celaya Aranguren, Mikel 01:32:08 Chimeno Morato, Iker 01:19:19 Civico Hernandez, Mikel 01:25:25 Conde Roper, Miguel Angel 01:47:31 Damian Aguirre, Unai 01:34:32 Diaz Azkolain, Ion 01:38:15 Diaz Vitoria, Javier 01:35:47 Dorransoro, J. A 01:50:54 Eceizabarrena, Ane 01:33:10 Egibar Ettxeberria, J.	Zizurkil 01:17:25 Agirrezabala, Xabier 01:30:36 Amado Leiva, Luis 02:09:57 Amenabar Zulaica, Eva 02:06:25 Arandia Mendizabal, Eba 01:33:52 Arruabarrena, Josu 01:56:30 Arruabarrena, Urko 01:42:39 Boujemaa Abas-Sarghini, Said 01:33:51 Ettxeberria, Jon Ander 01:27:21 Ettxeberria, Iñaki 01:45:10 Etxezarreta, Jesus 01:25:52 Gomez Valle, Alvaro 01:35:55 Herrera Fernandez, Jose Maria 01:57:18 Iparragirre, Patxi 01:59:47 Iraola Ariztimuño, Maitane 01:36:45 Mendizabal, Joseba 01:42:46 Ormaetxea Arsuaga, Jon 01:50:46 Pablo Curto, Markos 01:22:28 Puyadena Urkola, Eneko 01:25:35 Robles Serrato, Lorenzo 01:45:05 Rubiños Martin, Andres 01:40:14 Seara Tejados, Xabier 01:20:24 Tejeria Olaetxea, Mikel 01:18:57 Txapartegi, Jesus M ^a			

«Azken zatira arte indarrak gordetzen aritu nintzen; gehiago arriskatu behar nuen»

RAMON OTEGI korrikalaria

Gaztelu » Ramon Otegi ordu bat eta sei minutu behar izan ditu Behobia-Donostia egiteko; bera izan da eskualdeko azkarrena

E. EZEIZA

Ramon Otegi (Gaztelu, 1971) lehendabiziko aldiz atera da aurten Behobia-Donostia lasterketan. Hala, denbora bikainarekin, estreinako honetan, eskualdeko lehenengoa izan da helmugara iristen. Bestalde, sailkapen orokorreko 13. postuan geratu da.

Gustura al zaude lortutako emaitzarekin?

Bai, bai, gustura nago, ezin naiz kezatu.



LETXEESTE

Asko prestatu al zara?

Behobiarako zehazki ez naiz aritu entrenatzen. Hala ere, duela hiru aste maratoia korritu eta hori lasterretarako prestatua etorri naiz. **Lehendabiziko aldiz atera zara Behobian, zer moduzko esperientzia izan da?**

Etxean korritzen genuelako edo, oso esperientzia polita izan da. Nahiko lasterketa gogorra da, baina bertako jendeak hartzen du parte eta esperientzia polita da. **Maratoian korritu ostean, hau erraza irudituko zitzaizun?**

Maratoiarekin alderatuz, laburra behintzat egin zitzaidan. Hala ere, orain masajistarekin nabil eta berrari esaten nion, beranduegi hasi ginela korri egiten. Hamalaugarren kilometrorako arte beldurrez

ibili nintzen, denbora gutxi baitzen maratoia korritu nuela, eta ez nekien indar nahikoa izango ote nuen. Hala, azken zatira arte indarrak gordetzen aritu nintzen, eta nik uste azkarxeago edo gehiago arriskatuta egin beharreko lasterketa zela.

Fisikoki nola aurkitu zinen?

Oso oso indartsu amaitu nuen, azken 5.000 metroak azkar egin nituen. Agian amaierara arte indarrak gordetzen aritu genilako.

Parte-hartze aldetik, inoiz baino jende gehiagok eman zuen aurtengo lasterketarako. Korritzeko garaian, hau onerako al da?

Bai, nik uste onerako dela, zenbat eta jende gehiagok parte hartu politago da. Hala ere, antolakuntza aldetik akats ugari ikusi nituen. Gu

aurrenekoetan atera ginen, eta horrenbestean, baina berotzeko ere oso toki gutxi zegoen. Gainera, gero eta dorsal hori gehiago daukelako edo, denak elkarren gainean atera ginen, ez genuen ia arnasa hartzeko lekurik ere. Bestela, antolaketa aldetik oso ondo, hau da, jan-edanak hartzeko tokietan eta amaieran.

Orokorrean, zer moduzko maila zegoela irudituko zitzaizun?

Maila nahiko altua zegoela esango nuke, denborak begiratzu gero, hauek nahiko onak direla uste dut. Gainera, esan zuten, obrak zirela eta 250 metro luzeagoa zen ibilbidea.

Askotan aipatzen da, Behobia igaro arte kaleak korrikalariz beteta daudelako, baina hau igarotzean, denak izukutzen dira. Zu ere horietakoa al zara?

Bai, ez dago esan beharrik. Gaur Berazubira joan naiz eta bi bakarrik genbiltzan korrika. Hala ere, orain kros denboraldia hasteko asmoa dut. Lasai xamar hasiko naiz baina jarraituko dut indarrak pixka bat berreskuratu eta gero.

E **Elkarrizketa**

Tolosa » 'Mundua Tolosan' ekimenaren baitan, Cesaria Evorak kontzertua eskainiko du gaur, 21:00etan Leidor aretoan ikusmin handia sortu du afrikarraren saioak

ERREDAKZIOA

Kontzertu bereziaz gozatzeko aukera izango da gaur Leidorren 21:00etatik aurrera; izan ere, ez da eguneroko kontua Cesaria Evora bezalako nazioarte mailako artista batek Tolosan zuzeneko eskaintzea. *Rogamar* bere azken lana aurkeztuko du Cabo Verdeko artista ezagunak. Amodioa eta distantziari buruz ariko da bere ahots lodi, erakargarri eta ikaragarri tris-teaz. *Mundua Tolosan* ekimenaren baitan sartu behar da emanaldia; afrikarraren emanaldia eta gero, Carlos Nuñez izango da hurrengo astean, eta Black Heritage Singers taldea, berriz, abenduan. **Tolosan estreinakoz emango duzu kontzertua. Nola sentitzen zara? Zer kontatu dizute herriari buruz?**

Donostian izana naiz, eta asko gustatu zitzaidan. Badakit Tolosa hiriburutik oso gertu dagoela, eta kontatu didate asko gustatzen zaizkizuela eta ospatzen dituzuela Inauteriak. Zein ederki, niri ere asko gustatzen baitzaizkit. Badakit baita ere, oso ondo jaten dela hemen, oroitzen dut hori.

Ikusmin handia sortu du zure emanaldia.

Atsegina da jakitea jendeari gustatzen zaiola egiten duzuna. Baina nik egiten dudana bizitza osoan zehar egin dudana gauza bera da: abestu eta abestuz gozatu.

Zer eskainiko diezu zaleei? Zure azken laneko abestiak? Abesti ezagunenak kantatuko al dituzu? *Rogamar* nire azken diskoko kante osatuko dute kontzertua, baina abesti zaharragoak ere kantatuko ditut, ezagunenak. Beraz, Cabo Verdeko musika tradizionala entzuteko aukera izango duzue, morna eta coladeira.

Euskaldun jarraitzaileak nolakoak dira?



HITZA

«Iraganera bidaiatzea da musika niretzat, barnean dudana adierazten dut»

Harrera beroa egin didate etorri naizenean, atseginak iruditzen zaizkit.

'Diva Descalza' da zure ezizena. Nondik dator?

Nazioarte mailako nire lehendabiziko diskoizanzen *Diva Descalza*, Parisen grabatu nuena. Horregatik deitzen didate horrela. Egia da oinutsik ibiltzen nintzela Cabo Verden, erabat arrunta da han.

Baina hori ez da posible Europan. Nik oinutsik kantatzen jarraitzen dut, naturala da.

Zer sentitzen duzu kantatzen duzuean? Zer dela musika zuretzat esango zenuke?

Oso eroso sentitzen naiz abestean. Kantatzen nagoen gainerako guztia ahazten dut. Taula gainean egotea erlaxagarria da niretzat. Emozioz betetzen naiz, izan ere,

zentzu batean, nire iraganera edota bizitza osora bidaiatzea bezala da. Barnean dudana adierazteko modu da musika niretzat.

Nola deskribatuko zenuke morna musika?

Cabo Verdeko musika tradizionala da. Mornarekin gure lurraldea eta bertako eguneroko bizitza, gure arazoak eta kezak deskribatzen saiatzen gara. Maitasunari

buruz ere hitz egiten dugu. Hunkigarria da sentimentuz bete.

Non sentitzen zara hobekien kantatzen ari zarenean: etxean bakarrik zaudenean, herri txikitian, hiri handietan...?

Niretzat guztietan berdina da, berrin abesten baitut leku guztietan. Nire abesten bidez jendearen sentimentuak trukatzeko saiatzen naiz beti.

Afrikako erritmoa eta ahots tris-tea. Nola definituko zenuke?

Erritmoa eta tristezia ederki joan daitezke elkarrekin. Argia eta itxaropena sufrimenduan ere aurkitu daitezke.

«Arrakasta izan ahal zuela egiten nuenak pentsatzen nuen batzuetan; begira orain»

«Zuei bezala Inauteriak asko gustatzen zaizkit; badakit baita ere, hemen oso ondo jaten dela»

Nolako da Cabo Verdeko bizitza?

Zoragarria den lurralde txiroa da. Gaur egun egoera hobean dago, izan ere, urte batzuk lehenago ez zegoen ezer han, itsasoa eta jendea soilik. Gaur egun langabezia dago eta ez du euririk egiten, baina jendea ez da gosez hiltzen. Emigrazioa dirua bildatzen dute euren familiarentzat, edo bestela herriira itzultzen dira atzerriko inbertsioekin, beraz hobetzen ari da egoera.

Musika ibilbide laburra izango zenuela zioten batzuek.

16 urte nituela hasi nintzen abesten. Era guztietako lekuetan aritu izan naiz kontzertuak eskaintzen. Urteetan egon nintzen tabernetan kantatzen. Batzuetan, egiten nuen horrek atzerrian arrakasta izan zezakeela pentsatzen nuen. Pentsamenduak ez zuen gehiegi iraun, baina, begira, gaur egun hemen nago.

Bizitzan egiteko zenuen gutzia egin duzula dagoeneko diozu.

Nire bizitza istorio luze baten modukoa da. Oso gustura, asetuta nago lortu dudana arrakastarekin. Gustatuko litzaidake abesten jarraitzea ahal dudan arte behintzat.

Zure musika gauza askorenekuazioa omen da.

Behar bada. Azken batean, Cabo Verdeko musika da, tradizioan oinarrituriko musika, gure eguneroko bizitzan, gure mirari naturalak, gure gabeziak, itsasoa... baina sentimentua edo sentitzea unibertsa la da.

Goi mailako musikariekin aritzen zara.

Nire bigarren familia bezala dira. Denbora asko igarotzen dugu elkarrekin, eta oso lagun onak gara. Eta, noski, oso musikari handiak dira.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Batoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30



Amezketaren historia hizpide gaur

AMEZKETA • Amezketako Kultur Astea pixkanaka aurrera doa. Igandean, besteak beste, bazkaria antolatu zuten Behartzan —argazkian—. Gaurkorako J.M. Oterminek hitzaldia emango du. *Garai bateko Amezketara gaurkoa* izango da hitzaldiaren izenburua. HITZA



Flemingeko ikasleak Zubietan

VILLABONA • Fleming ikastetxeko 5. mailako bi talde Zubietan izan ziren aurreko astean Realeko entrenamendua ikusten. Hasieran, Realeko historia (garaipenak eta galdutako partidu garrantzitsuen tentsio umeak) bi-deoz ikusi zituzten Manu Urbietak jokalariei ohiaren laguntzarekin. Gero, futboleko aritu ziren eta instalazioak ikusi zituzten. Bidean harrapatu zituzten jokalariei autografoak eskatu zituzten eta azkenik, bi jokalarirekin hitz egiteko aukera izan zuten, Asier Riesgo eta Alvaro Novo, eta argazkia atera zuten beraiekin. HITZA

Laburrak

XVII. Kros Herrikoia, igande honetan

IKAZTEGIETA • Iganderako, hilak 18, antolatu dute ikaztegietak XVII. Kros Herrikoia, 11:00etan. www.herrikrossa.com helbidea (6 euro) edo lasterketaren egunean 09:00etatik 10:30era (8 euro) eman daiteke izena.

Olazabal: «Partida oso txarra egin nuen igandean»

ARESO • Olazabalek Zubietarekin batera igandean jokatuakotako partida galdu zuen 22-17. «Partida oso txarra egin nuen», azaldu du aresoarrak, «profesionalan egin dudana txarra. Konfidantzarik gabe aritu nintzen».



Marta Estanga eta Arantza Goikoetxea abesten eta Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe saria jasotzen. EN

Goikoetxeaundia eta Estanga, Euskal Herriko Kantu Txapelketara

Musika • Lizartzako eta Tolosako bikoteak bere mailan lehenengo postua lortu zuten Gipuzkoako Kantu Txapelketan



T-Klax taldekoak Antzoki Zaharreko saioaren une batean. EU NOSELLAS

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako Kantu Txapelketaren finalean hainbat sari eskuratu dituzte eskualdeko partaideek. Horietatik nagusia Arantza Goikoetxeaundia lizartzarrak eta Marta Estanga tolosarrak lortu zuten. Bikoteen mailan lehenengo postua lortu zuten eta sailkapen orokorrean bigarrena. Horregatik, Euskal Herriko Kantu Txapelketan hartuko dute parte.

Ezin sinistuta daude bi abeslariak lortutakoarekin. «Sorpresa handia izan da eta poz handia», azaldu dute bik. Estanga berak jakin gabe eman zuen bien izena Goikoetxeaundia eta orain Euskal Herrikoan daude. Biek bat egiten dute Villabonakoan guturago gelditu zirela emanaldiarekin esatean. Orain, ekaina inguruan parte hartuko dute Euskal Herriko Txapelketan.

Oihane Sarasola ibartarrak bigar-

rren postua lortu zuen bakarlariekin mailan eta laugarrena orokorrean. Euskal Herriko hiru partaide sailkatzen zirenez, Sarasola ordeko bezala geditu da.

Ikuslegoaren saria Aranzabe eta Berasaluzerentzat

Ikuslegoak bere botoekin ematen duen sari berezia jaso zuten Kristina Aranzabe billabonatarak eta Leire Berasaluze adunarrak, Epaimahaiak ere halatsu pentsatu zuten, *Publikoarekin konexioa* sari berezia ematerakoan.

Bikote gazteenetakoa osatzen zuten Aranzabek eta Berasaluzek. «Oso pozik» jaso dituzte bi sariak eta nabarmendu dute txapelketan bitziko giroa izan zela hobereana. «Harreman handia izan dugu beste partaideekin», azaldu dute. Garbi dute datorren urtean berriro parte hartuko dutela.

Eskualdekoek lortutako beste sariak, Alaitz Ormazabal zizurkildarrak, ahots hutsez egindako interpretazio onenari, eta T-Klax taldeak, ausardiaren saria, jaso zituzten.


bete eta bidali/eraman edo deitu:
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.
Araba etorb. 5, behea - 20400 Tolosa

Izena.....
Abizenak.....
Helbidea.....
Herria.....P.K.....
Telefona.....
k/k
P.elektronikoa.....

arreta zenbakia
902-82 02 01
(astegunetan 8:30-20:30 / larunbatetan 9:00-19:30)

egin zaitez orain **Hitzaren harpidedun***
eta zure **ametsetako bidai**a eskuratu dezakezu!

bi laguntzako astebeteko egonaldia



Deiak edo esku orriak jasotzeko azken eguna: abenduak 12
Zozketa eguna eta irabazlea egunkariari: abenduak 20

HITZA
orain gertuago

kanaria uharteak egipto
jordania riviera maya
salvador (brasil)
costa rica istanbul india

G Gutunak

Bide Berriak-en jarrera eta erabakiak argitze aldera

Leaburu-Txaramako EAE-ANVk beraien interesen alde gure erabakiak, oker arrazoituz, hainbeste aldiriz gaitzetsi dituzten azken garai hauetan, beharturik ikusten gara gure jarraitzaileen, eta ondorioz, emaitzen berri ematera. Emandako pauso guztiak argi azaltze aldera, banan banan aletuko ditugu:

1. 2007ko hauteskundeetara bat emanez, zera gogoraraziko dugu: Foru Aldundirako, EAE-ANVk 165 boto lortu zituela, herritarren hirutik bi. Udalerako, Leaburu-Txaramako EAE-ANVri, 128 botoekin, herritarren erdiak bakarrik azaldu ziela beraien babesa. Bide Berriak-ek 118 izan zituzten, erraz kalkulatu daiteke gure botoen Hirutik bat EAE-ANVren jarraitzaile direla.

2. Aldaketarako gogo nabarmenegi honen aurrean, baina beti ere Alderdien Legearekin bat ez gaudela adieraziz, hauteskundeetako emaitzen arabera, dagozkigun hiru zinegotzien kargua bakarrik hartu dugu, legeak baimentzen zizkigun beste lauei uko egin ez. Beraz, herritarren borondatearen arabera soilik jokatu dugula argi erakusten dugu.

3. Udala osorik osatua nahi dugulako, herritarrei iruzurrik egin nahi ez diegulako, 182.2 artikulua aplikatzearen alde azaldu gara beti. Hori bai, legearen aurrean

muturrak aurrera erortzeko arriskurik ez izatearen, gu ere ilegaltzauek izateko saihestearren, guri baimendutako zinegotzi-karguak EAE-ANVko hautesle-zerrendakoez ordezkatzeko ez dugu ikusten bideragarria, Hautesle Batzordearen baitan dagoelako eta ez gurean ordezkatzearren azken pausoa. Bideragarria deritzogu aldiz, beraien gertuko eta konfidantzakoak liratekeenak gure taldean sartzea.

4. Aretxabaletako EAE-ANV, Aralar eta EAk sinatu zuten moduko hitzarmen bat eredutzat hartu eta jarraitzea izan da gure asmoa. BERRIA egunkariak, 2007-07-20ko alean jasotzen diren Joseba Alvarez Batasuneko ordezkariaren hitzetan ere "eredugarria" zela esaten bazuen ere, gure herritako EAE-ANVko Amalia Adurriagak uztailaren 20ko gure azken bilan ozen esan zigun Aretxabaletako hitzarmena "ez zutela irakurri ere egingo", "hainbeste bileraz aspertuak zeudela" gaineratuaz.

5. Gestora konturik ez da inoiz inongo bilera edo udalbatzarretan aipatu, ez gure eta ez beraien partetik. Hori horrela dela egiaztatzen, uztailaren 25eko Udalbatzarren berri ematen duen HITZAREN 2007-07-27ko alerako besterik ez dago. Ezohizko Udalbatzar hartan Gipuzkoako Foru Aldundira joatea erabakitzen da. Bertan, Udaleko Idazkariak bere kontura bidaltako ziurtagiriaren berri jakin-

ten dugu. Ezinbestez hiru zinegotzien sinadura eraman behar zuen ziurtagiri hartan erru larria azaltzen da: gestora bat osatzeko adostasuna izan dela. Orain, batzutan, honi ere eutsi nahi diote. Bestetan 182.2ari.

6. Inongo irtenbideetara, epe laburrean behintzat, iristeko itxurarik ez izatearen ondorio, Udalaren Osaketan Organu Nagusi eta derriroezkoak jotzen den alkatetza hartzea behartuak ikusi gara. Beraien jarrera atzerakoi eta itsuan, "lau utzi eta guk lau hartu eta goazen proba egitera ea zer gertatzen den" bezelakoekin azaltzen zaizkigu. Honen guztiaren aurrean, Leaburu-Txaramako EAEn asmoa gu ere ilegaltzauek izatea dela nabarmengia da.

Udalaren osaketan ezinbestekoa da alkatetza bat egotea. Organu honen derriroezkotasuna, Plenoarekin batera, legeak derrigorren baita. Hauek baitira, herriko erabakiak gauzatzeko kompetentzia duten bakarrak. Izendapen hori gabe, Leaburu norabiderik gabe geratuko zen, eta honela gure herriaren etorkizuna Gipuzkoako Hauteslego Batzordearen eskutan. Hori bai herriaren borondatearen aurkako udal bahituaz gainera zapuztua eta saldua litzatekeela eta ez beraien esan ohi duten "lapurtua".

Joxe Martin Deusto Iturri (Bide Berriak Hautesle Elkarteakidea). Leaburu-Txarama.

Ana Belen Egues euskal presoak espetxez aldatu dute asteburua

Politika » Ana Belen Egues 2001. urtean atxilotu zuten Madril eta sei urtetan bost espainiar espetxetatik igaro da

esker jakin genuen», ez baitzuten Eguesekin «hitz egiteko aukerarik izan».

2001ean atxilotu zuten elduaindarra Madril. 6 urte hauetan bost espetxetatik igaro da, guztiak Euskal Herritik kanpo.

ASIER IMAZ

Ana Belen Egues Gurrutxaga euskal preso elduaindarra asteburu honetan espetxez aldatu dutela jakinarazi du bere sendiak. Soto del Realetik (Madril) Huelvara (Andaluzia, Espainia) urrundu dute euskal presoak, hau da, etxetik 1.200 kilometrotara aurkitzen da egun.

Hiru urte t'ardi isolamenduan

Azken hiru urteetan Soto del Realen eduki dute Ana Belen Egues, isolamenduan. Iragan astebukeraren Huelvara eraman zutela jakin zuen sendiak. Albistea, «Huelvako euskal preso batek eginiko deia



Ana Belen Egues Gurrutxaga. HITZA

Regina Otaolak (PP) Mariano Rajoy Lizartzara gonbidatu du

Politika » Regina Otaola Estatu osoko alkateen erakundeko presidenteorde aukeratu zuten herenegun

A. IMAZ

Regina Otaolak (PP) alderdiko buruzagia, Mariano Rajoy, Lizartzaragonbidatu du, hauteskundeetan

mitin bat eman dezan. Iragan asteazkenean luzatu omen zion gonbitea. Otaolaren beraren esanetan. Eibarrararen esanetan, Mariano Rajoyk «printzipioz» gonbitea onartu egin omen zuen.

«Herri fantasma»

Regina Otaolak azaldu zuenez, ez du nahi Lizartzara «inork joan nahi ez duen herri fantasma izan dadin». Herri «ireki» bat izatea nahi

omen du, «biolentziarik gabe, legea eta demokraziaren barnean edozein alderdik kanpaina egin dezan».

FEMPko presidenteorde

Herri eta Probintzien Federazio Espainiarrak (FEMP) biltzar nagusia egin zuen herenegun Madril. Bertan Regina Otaola aukeratu zuten estatuko alkateen erakundeko presidenteorde.



Txerri despiezearen ondoren, janka

IBARRA » Igandean Babarrun jatea ospatu zen Ibarren. Hauspoa Elkarteak antolatuta eta urtero bezala, herritar ugari bildu zen bazkaltzeko udal-terreko aldamenean prestatu zen karpan. Eguerdian, txerri zatiketa edo despieze erakustaldia eskaini zuten bestalde, herriko bi harakinek. Txerria hil ondoren nola zatitzen den ikusteko aukera izan zen beraz. ANDEROTZABAL

H Hilberria

ENRIKE IRIZAR MUÑOZA

XANTU

Maria Pilar Murua Mendizabalen alarguna

Atzo hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Bere arimaren zuzendaria: Joxe Eguzkitza; seme-alabak: Milagros eta Joxe Amiano, Joxe Manuel Irizar (1) eta Karmen Zubillaga, Joxe Mari eta Nª Jesus Olagui, Joxe eta Mª Angeles Urkizu, Daniel eta Gaspar Balerdi, Juan eta Berto Olaitua, Ramon eta Kontzi Abalalde, Jose Luis eta Milla Erauzetamungui, Pili eta Inaxio Balerdi; ana-arrebak: ezkon anai-arrebak, Iñabak, bilobak, bilobak, lehenengoak eta gainerako ahizpak.

Haren arimaren alde olotz bat eskatzen dizuezte eta arren etor zaitzetez LAUR ASTEARTEA, arratsaldeko BOST T ERDIETAN, Aitzoko ANDRE MARIA parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ALTZO
2007ko
azaroaren 13an

Hilabidea: Zaltzeta baserria
Oharra: Gorpuztela Tolosaldeko Funerariari Vascongada Tanatorioan dago. Errosario Santua arratsaldeko 17:15ean errezatuko da eliz bertan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosa-Aralarrek 22 puntutako aldearekin galdu du Zornotzan

Saskibaloia » Tolosarrek partida hasiera ona egin zuten arren, bigarren laurdenetik aurrera noraezean ibili ziren

rren laurdenean, zenbait arazo tekniko izan zirela medio (kiroldegiko argiak itzali ziren), 15 puntu-rengatik galdu zuten tolosarrek.

Hirugarren laurdenean, gauzek berdinarra zuten, Zornotzakoek presio handia ezarri zuten 73-48ko emaitzarekin irabaziz.

ERREDAKZIOA

Denboraldiko laugarren porrota jasan zuen Tolosa Aralar taldeak pasa den larunbatean Zornotzan.

Partida hasiera bikaina izan zen tolosarrentzat, azkenean lehenengo laurdenaren amaierara berdinketarekin iritsi ziren arren. Biga-

Laugarren laurdenean, irabazle Tolosakoek partida galdu zuten arren, laugarren laurdena irabaztea lortu zuten. Datorren asteburuan Bizkaiko Padura taldearen aurka lehiatuko dira, Tolosako Usabal kiroldegian.

Laskorainek 3-4 irabazi du asteburuan Elorriora egindako bisitan

Futbola » Tolosakoek 3 puntu eskuratu dituzte eta beste aste batez Nazional B mailaren ohorezko postuetan jarraitzen dute

go gola sartu baitzuen, atsedenaldira 2-2koarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian bizkaitarrek hirugarren gola sartu zuten, baina Ekhiak eta Telletxeak gol bana sartu ondoren, partida irabaztea lortu zuten. Honela, tolosarrek sailkapeneko bigarren postuan dira eta datorren astean Zierbena taldearen aurka ariko dira.

Bestalde, Harrobiari dagokionez, filialak 4-3 irabazi zuten etxean eta neskek 2-3, kanpoan.

ERREDAKZIOA

Laskorain ikastolakoek 3-4 irabazi zuten Elorrioren aurka. Ikastolakoek beraien lana ongi hasi zuten arren, Telletxea gazteak lehenen-

Aurrerak 4-1 galdu du Iruñeako Amigo taldearen aurka

Futbola » Aurrerak denboraldi honetako bigarren porrota izan du Amigo taldearen aurka 4-1 galdu ondoren, Iruñean

zuen Aurrerak. «Gero arbitroak penaltia adierazi zuen, normalean adierazten ez diren horietakoa, eta hor aurkariek hirugarren gola sartu ziguten». Aurkariek sartu zuten azkeneko gola, ere ez zen oso argia izan, Azpirozek azaldu duenez. «Beste jokozainaren akatsarekin, jokoaz kanpoko jokaldia ez zuen ikusi eta gola sartu ziguten». Azpirozaren ustez, berdinketa gutxienez merezi zuten. «Arbitroaren kontua izan zen. Aurreneko zatian ere penalti bat adierazi behar zuen gure alde, eta ez zuen egin».

N. GARZIA

Aurrerak larunbatean Iruñean Amigo taldearen aurka jokatutako norgehiagokan 4-1 galdu zuen. Leitzarrek denboraldi honetan izan duten bigarren porrota da hau.

Mikel Azpiroz Txotxak Aurrerako jokalariek azaldu duenez, «gu erasotzen hasi ginen, baina hankasartze pare bat egin genituen lehenengo zatian». Gauzak honela, atsedenaldira 2-0ean joan ziren. Bigarren zatian segituan gola sartu

Sailkapenean, bigarrenak Aste honetako partida eta gero, al diz, Aurrera eta Cantolagua bigarren doaz, 20 puntuekin. Datorren ingandean Ansoaingo Gazte Berriak taldearen aurka ariko dira.



Barriolak eta Olaizola II.ak behin baino gehiagotan aritu dira elkarren aurka, lau t'erdian. MADDI SOROA

Abel Barriolak lau t'erdiko finalerako txartela lortu du

Pilota » Titin III.aren eta Olaizola II.aren artean dago bigarren finalista, hauek ingandean lehiatuko dira, Gasteizko frontoian

gehiagoka ingandean izanen da, 17:00etan, Gasteizko Ogeta Pilotalekuan. Juan Martinez de Irujok, berriz, ez du punturik lortu, beraz jokatzeke norgehiagoka bat duen arren, ez du finalera sartzeko inolako aukerarik. Martinez de Irujo eta Barriolaren arteko norgehiagoka larunbatean izango da, 17:00etan, Iruñeko Labrit Pilotalekuan, eta material hautaketa bihar bertan egingo dute, Labriten, 11:30ean.

Abel Barriolak atzo maila paregabea erakutsi zuen Atano III.lean. Bertara hurbildu ziren 1.500 pilota zaleek maila handiko pilota partidaz gozatzeko aukera izan zuten,

eta Julian Iparragirre pilotan adituaren ustez, «inoiz lau t'erdian Barriolak jokatu duen partidarik hobereana izan da».

Pilotaren abiadura

Iparragirreraren ustez hasieratik partida «oso ona» izan zen. «Bi pilotari maila ikaragarri eman zuten. Hasiera nahiko dudakoa izan zen Abelen zatitza, galtzen hasi zelako, ez bere erruarengatik, Aimar oso ongi hasi zen». 7-2koan, ordea, Olaizolak pilota bat galdu eta Barriolak saka hartu zuen. «Hau eta gero berdinketa iritsi zen».

Barriolak pilotari eman zion abiadura izan zen, Iparraren ustez, leitzarri garaipena eman ziona. «Aspaldi honetan ikusi dudana partidarik hobereana izan da, eta niretzako lau t'erdian Barriolak jokatu duen partidarik hobereana, zeinen aurka jokatu duen kontutan hartuta. Horrela sakatzea ez da batere erraza, horrelako abiadurarekin. Barriolak ikaragarri sakatu zuen, eta esaterik badago, perfektu».

NAIARA GARZIA

Abel Barriola Lau t'erdiko Txapelketako finalean da jada, ingandean Aimar Olaizolari irabazi eta gero. Herenegungo partida eta gero, leitzarrek zuzenean finalerako txartela eskuratu du, eta datorren ingandean Juan Martinez Irujoren aurka lehiatuko den arren, norgehiagoka honek ez du leitzararentzat inolako garrantziarik.

Barriolak eta Olaizolak maila altuko partida jokatu zuten herenegun Donostiako Atano III.lean. Frontoiak sarrera paregabea izan zuen (1.500 ikusle, hain zuzen ere) eta animazioz ez zen faltatu partida osoan zehar. Partida hasieran Olaizola aurretik joan zen arren (lehenengo 2 tantoak berak egin zituen), 7-2koaren ondoren Barriolak aurrea hartu zuen pilotari goizutarrari, eta 7-9an jarri zuen markagailua. Hortik aurrera Leitzarrek pilotariak ia erabatean aurretik joan zen markagailuan, 10-9an izan ezlik.

Zuzenean finalera

Lau t'erdiko Txapelketako sailkapenari dagokionez, Barriolak 2 puntu dituen zuzenean finala jokatuko du. Titin eta Olaizola II.a, aldez, berdinduta daude (biek puntu bana dute), eta datorren asteburuan haien arteko partidaren erabakiko da bigarren finalista. Nor-

» ZENBAIT DATU

- **Partidaren iraupena.** 67 minutu eta 14 segundo.
- **Pilotakadak.** 356.
- **Sakean tantoak.** Barriolak 4, Olaizola II.ak 4.
- **Sakean faltak.** Barriolak 0, Olaizola II.ak 0.
- **Markagailua.** 2-0, 2-1, 4-1, 4-2, 7-2, 7-9, 10-9, 10-12, 11-12, 11-13, 14-13, 14-16, 15-16, 15-18, 17-18, 17-20, 18-20, 18-22.
- **Botilleroak.** Asier Olaizola Olaizola II.aren eta Joxe Antonio Olaizola II.aren aurka.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

akademia
Pausoke

Martin J. Iraola 2 - behea
TOLOSA • 943 67 24 48

• Ingelesa

First Certificate, advanced, Proficiency bezalako azterketa ofizialetarako prestakuntza.

• Frantsesa, arabiera, italiara

Maila guztiak • Gaituriko irakasleak

• Errefortzu eskolak

Zientziak eta letrak *adin guztiak Eguneroko jarraipena *talde murrituak

Tolosan, Berrobin eta Berastegin ematen ditugu klaseak.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Cabo Verdeko Cesaria Evora abeslariak *Rogamar* diskoaren abestiak eskainiko ditu Leidor aretoan 21:00etan. Antolatzailea: Udal Kultur Batzordea.

Deialdiak

■ **Alegia.** Argazki proiektio bat eskainiko dute Kultur Etxean. *Alegia-ko bizimodua* darama izenburuztat. Eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ere ikusgai erongo da Kultur Etxean.
■ **Anoeta.** Itziar Zubizarreta ipuin kontalariaren saioa 18:00etan Anoetako Udal Liburutegian, LH1 eta LH2ko ikasleei zuzendua.
■ **Belauntza.** Belauntzako Pilota Eskola indartzeko bilerara deitu da interesatuta dauden gurasoentzat, 19:30ean.
■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako Amurrioren artean antolatutako hilaren 17rako, Gasteiz eta Zumaia ere bisitatuz. Izen-ematea, elkarrean 26 euroren truke. 28 euro ordaindu beharko dute bazkide ez direnek.
■ **Tolosa.** Mendia eta naturaz argazki lehiaketa antolatutako Oargi mendiko elkarrean. Argazkiak Karlis argazki dendan entregatu behar dira hilaren 15erako. Sari ederrak izango dira.
■ **Zizurkil.** Teodoro Hernandezena 6. Ipuin Lehiaketa antolatutako Zizurkilgo Udalak Aiztondo bailarako adin guztietako herritarrentzat. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea. Aiztondo bailarako udaletxeetan utzi ahaliko dira argazkiak.
■ **Tolosa.** Babarrun Festaren Astearen baitan Zerkausian egingo diren bazkarietan eta aforietan izen-ematea www.tolosagourmet.com-en edota 943 697413 telefono zenbakian.

Kultur Asteak

■ **Amezketak.** Amezketako Kultur Astea: *Garai bateko Amezketak eta gaunkoa* hitzaldia Joxe Mari Oterminen eskutik balioanitzeko gelan 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Bizikleta gaineko euskal indioak

Aisia » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Rajuk antolatutako egitarauaren hirugarren irteera egin zuten igandean

ASIER IMAZ

Ibarrako Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriarrik elkarrean, bizikleta irteera antolatu zuten iragan igandean Bardeetara. *Euskal Herria Ezagutzuz, Lurraldetasuna Sustatuz* egitarauaren barneko hirugarren irteera izan zen asteburukoa. Laugarrena, Bizkaia otsailaren 10ean egingo duten mendi irteerazango da.

16 indio bizikleta gainean

Egun guztia Nafarroa hegoaldean pasatzeko asmoz, hamasei lagun elkartu ziren, goizean goiz, 08:00etan Ibarrako plazan. Bizikletak kamioian sartu ondoren, Arguedas herrira abiatu ziren, eta «bidean gasolinarik gabe geratu zenik ere izan zen».

Behin Bardeetan, bizikletara igo eta «Western pelikuletako indioak bezala, izan ere bakeroak Bardeetan ere gaiztoak dira, bideari ekin genion». 5 orduko ibilbidea «lasai» egin ondoren, Arguedasera itzuli ziren «zaldirik gabeko 16 indioak».

Antolatzaileak eta parte hartzaileak, «nekatuta baina oso gustura» agertu ziren amaieran, «Euskal Herriko paraje berezian asko gozatu ostean».



Indio zaharrak sasoian zegoela erakutsi zuen. Aldamenean, «tribu» guztia Lurrezko Gazteluaren babesean. A. IMAZ

hitza ren eskutik

PIRRITX eta PORROT

PANPINAK

eta DVDa etxeko txikiek jolasteko



«Mari Motots»
ikusizunaren DVDa

18€



Pirritx eta Porrotx
(motxila opari)

40€



Pirritx
(poltza opari)

20€



Porrotx
(poltza opari)

20€

Egin eskaria amaitu baino lehen

902-82 02 01

hitza info

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...